

Bidasoaldean, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko jendeak biltzen diren eremu zabalean, era guztietako elkarteak sortzen dira, gizarte arlokoak, kulturalak, erlijiosoak, gazteendakoak..., eta abar. Zaharrak ere, edo hobeto erranik, adinaren neguan direnak, hainbat elkartetan biltzen dira. Bada *Beti Gazte* izeneko elkarte bat Bidasoa ibaiaren bi aldeetan aritzen dena, eta gazte izandako ainitz bere baitan hartzen dituen. Hirurehun bazkide gutti gora-behera, eta bere lokaletan biltzeaz gain, bestelako ekimenak, bestak eta bidaiak antolatzen dituzte.

2020ko maiatzean bidaia bat antolatu zuten Italiako Milan aldera, baina koronabirusa zela eta, hotel batean konfinatu zituzten eta hor egon ziren hilabete bat ezin ateraz eta Euskal Herrira ezin itzuliz. Hogeita hamaika egun osora. Erraz erraiten da, hogeita hamaika egun hotel batean konfinatuta!

Baina lehen afariaren orduan, kafearen tenorean, Pette hendaiarrak eramandako botila bat patxaran pasatu zuten mahaiz mahai, eta baita laster hustu ere. Muturra berotzean, lehen kantuak entzun ziren. Gero, txistuaren erritmoari jarraiki, dantzari ekin zioten, eta akitu zirelarik, baten batek ipuin bat kontatu zuen. Hortik aitzina, eta hogeita hamaika egunez, gauza bera egin zuten. Ipuin horiek guztiak dira hemen bilduta daudenak.



dakit  
argitaldaria

IKH  
argitaldaria

*Istorio laburrak, baina ez eskasak; arinak baina ez arinkeriaz bilduak; ene gomendioa bada tarteka-marteka irakurtzea, ez den-denak elkarren segidan, gutziak, goxokiak edo bonboiak balira bezala, bakoitza gozatuz eta aho-sapaian utzitako zaporea dastatzeko denbora emanda, harik eta ezpainetan irribarre bat marraztu arte.*

*Istorio laburrak, baina ez motzak; irakurle gazteak —eta ez horren gazteak— ikasbide jakingarriak eskuratuko baititu ipuin hauen bidez. Izan ere, xalo eta xumeak diruditen ipuin hauek guztiak bere baitan gordetzen dituzte, denek ala denek, opari txiki gozagarriak. Bonboi-kutxetan dauden bonboi guztiak ez zaizkigu denoi berdin gustatzen; hala gertatuko da, segur aski, ipuin hauekin, ezinbestean; nork bere gustura egiten du etxea.*

Josu Jimenez Maia, idazlea

# GONBITEA

Joseba Aurkenerena Barandiaran

Konfinamenduan ere konta-kontari

## Joseba Aurkenerena Barandiaran

### Konfinamenduan ere konta-kontari



© Lander Zurutuza, 2019

Joseba Aurkenerena Barandiaran (Donostia, 1956). Gazte-gaztetik Euskararekin, gure historiarekin eta euskal mitoarekin zaleturik. Historian lizentziadun eta irakasle lanbidez. Euskal Herriarekin loturiko gaiak maite eta ikertzen ibili da luzaz, gure geografiaren luzezabalean. Herri honen izate eta nortasunaz liluratutik eta abiapuntu idatzi du. Denetarik egin du: artikuluak, ipuinak, olerkiak, antzezlanak, saiakerak, etnografia lanak... beti gure Herriari dion amodioak gidaturik.

Lapurdiko Ururuñan bizi da bere familiarekin, eta badira bost bat urte erretretan sartua dela. Hala ere, bizitokia epizentrotzat harturik, Euskal Herri osoko gaiak ikertzen eta jorratzen jarraitzen du, pasioz eta ilusioz, beti egin duen bezala.

Oraingoan ipuin bilduma batekin datorkigu.

Azaleko marrazkia: © Lander Zurutuza Sunsundegi, 2022  
Azalaren diseinua: Sabin Oregi Zarautz  
Azal hegaleko argazkia: © Lander Zurutuza Sunsundegi, 2019

dakit  
argitaldaria

dakit argitaldaria

*Konfinamenduan ere kontakontari*

Joseba Aurkenerenak 2022an kaleratutako ipuin liburuaren  
**aurkezpena gonbidatzen zaitu.**

Lekua: **Donostiako Udal Liburutegi zaharrea** (Mandas dukearen aretoan).

Data: **urriaren 18an**

Ordua: **12:00etan**

**dakit**  
argitaldaria